



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2010-06-16**

VIII. URTEA 2.028. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Iñaki Murua, Bertsozale Elkartearen presidentea, eta Lurdes Auzmendi, Eusko Jaurlaritzako sailburuordea. ENERITZ MAIZ

BERTSOZALE ELKARTEAK 141.670 EURO JASOKO DITU JAURLARITZATIK

VILLABONA Mintzola Etxean sinatu dute 2010. urterako lankidetzaren hitzarmena Iñaki Muruak eta Lurdes Auzmendik 6



Iturain, Aiako alkatea; Letamendia, azoketako zinegotzia eta Labaka, Urkomeko lehendakaria. I. TERRADILLOS

AZOKA BEREZIA UROLA-KOSTARI SO

TOLOSA Sanjoanen baitan, hilaren 19an, Triangeluan bi gune jarriko dituzte; salmenta postuen ondoan erakusketak ere egongo dira 2

Gazte Festak etzi hasiko dira pilota finalarekin

IBARRA Gazte Asanbladak hiru egunetarako antolatu ditu ekitaldiak; txoznak ere zabalik egongo dira eta Gazte Bazkaria azken egunean egingo dute Xepla elkartean 7

Mendi Martxa, BTT eta Mendi Duatloia igandean

BEDAIO Artubi eta Balerdi inguruak oinez eta bizikleta gainean ezagutzeko aukera antolatu dute Artubi elkartearen kideek 5

Udalbiltzaren aurkako epaiketa salatzen jarraituko dute

POLITIKA Tolosako eta Leitzako Babes Taldeek absolutioa ere eskatuko dute; orain arte egindako ekimenek erantzun anitza jaso dute 3

Urola-kostako produktuen erakusleiho izango da sanjoanetako azoka berezia

Gastronomia »

Trianguloan salmenta eta erakusketa guneak izango dira goiz osoan; 19 postu egongo dira denera.

INIGO TERRADILLOS

Lore eta Landareen azoka berezian ostean sanjoanetako azokaren txanda izango da larunbat honetan. Ohiko larunbateroko azokaren eskaintza handituko da, beraz, betiko hiru guneei laugarren gune bat batuz, Trianguloa, hain zuzen. Bertan, Urola-kostako produktuekin osaturiko mahaia jarriko dituzte.

Nerea Letamendia azoketako zinegotziak atzo eginiko aurkezpenan adierazi zuen bezala, «larunbateroko azokari indarra ematen jarraitzea da helburua, baina, era berean, azoka berezietan beste eskualdeetara ere gerturatu nahi

Beste eskualdeetako produktuak gurera ekarri, eta gureak kanpoan ezagutarazi nahi dituzte

dugu». Asmoa, beste eskualdeetako produktuak gurera erakusgai jartzea eta eskualde horietan Tolosaldeko ekoizleek egiten dutena ere erakustea da, «nolabaiteko lankidetzeta eta elkartrukea burutuz».

Estreinako elkartrukea Urola-



Igor Iturain Aiako alkatea, Nerea Letamendia azoketako zinegotzia eta Manuel Labaka Urkomeko lehendakaria, atzo. I.T.

kostarekin burutuko dute, eta larunbat honetan bertan izango da, Trianguloan izango den azoka berezian. «Bisiguaren Festa dela-eta, badugu harremana eskualde honen, eta horregatik erabaki dugu bertako produktuekin egitea azoka, lankidetzeta hori indartzen jarraitzeko», azaldu zuen Letamendia. Azoka berezian parte hartuko duten Urola-kostako ekoizle batzuk, gainera, Tolosako larunbateroko azokan ere egon ohi dira.

Igor Iturain Aiako alkatea ere

izan zen aurkezpenan, eta esker-erak eman zizkion Tolosako Udalari euren produktuak Tolosaldean jartzeko aukera emateagatik; «Barnealdeko nahiz kostako ekoizleen eguneroko lana ezagutu ahal izango da, euren produktuak ikusi eta dastatzeko aukera izango baitute gerturatzen direnek».

Trianguloan bi gune

09:00etan zabalduko ditu atek azoka bereziak, eta goiz osoan zehar egongo da irekita. Bi gune ez-

berdinetan banatuko dute. Batean salmenta postuak egongo dira, eta hauetan askotariko produktuak jarriko dituzte, hala nola, barazkiak, mermeladak, antxoak, txakolina, gazta... Guztira, 19 postu egongo dira.

Bigarren, berriz, erakusketa gunea izango da; hemen, batetik, Orioko saregielek arrantzako sareak konpontzen ikusi ahaliko dira, eta bestetik, antxoaren ontziratzeko prozesua erakutsiko dute.

Horretaz gain, «giroa gehiago

» PARTE-HARTZAILEAK

- **Aroa.** Entsaladak, enbasatuak (Getaria).
- **Blas-Enea.** Barazkiak eta aromatika mintegia. Ekologikoa (Zarautz).
- **Basatxerri.** Txerriak (Zestoa).
- **Korta.** Barazki ekologikoak (Azkoitia).
- **Kurutzeaga.** Euskal baserri barazkiak (Azkoitia).
- **Mokoroa baserria.** Ogja (Azkoitia).
- **Arreta baserria.** Gazta (Beizama).
- **Basa Lore.** Txakolina (Getaria).
- **Urkaiko.** Haragia (Zestoa).
- **Itsasmendia.** Itsas kontserbak (Getaria).
- **Egaña.** Azpeitiko San Inazioak (Azpeitia).
- **Giezberrri.** Label ezitia (Getaria).
- **Larraxkanda baserria.** Gazta antzinako erara (Azkoitia).
- **Aiakoana.** Mermelada ekologikoak (Aia).
- **Errezilgo azoka.** Errezilgo produktuak (Errezil).
- **Ardi gazta kooperatiba.** Gazta (Azpeitia).
- **Enparangain baserria.** Euskal baserri barazkiak (Azpeitia).
- **Gaintza txakolindegia.** Txakolina (Getaria).
- **Turismo bulegoak.** Urola-kosta eta Tolosaldekoak.

alaitzeko», Orioko parrileroak sardinak erretzen egongo dira, eta bertaratzen direnei banatuko dizkiete, jatorrizko izendapeneko txakolinarekin.

Paraguaireren aldeko Karai-Mi jaialdia izango da gaur, Leidorren

Elkartasuna » 20:00etan hasiko da ikuskizuna; biltzen den dirua osasun eta eskola materiala erosteko izango da.

I. TERRADILLOS

Jaialdi berezia izango da gaur ikusgai Leidor aretoan, 20:00etatik aurrera. Berezia, dantza, musika, bertsoak edota poesia errezitaldiak bezalako hainbat osagai izango dituelako eta elkartasunezko helburua duelako. Izan ere, Karai-Mi jaialdirako sarrera 5 euro or-



Alurr dantza taldeak ere hartuko du parte gaurko jaialdian. HITZA

daindu beharko da, eta lortzen duten dirua Paraguaiako proiektu baterako izango da.

Idoia Ruiz tolosarra, Olatz Sagastume amezketarra eta Garazi Romero ordiziarraren ekimenez

antolatu dute jaialdia. Hirurak erizaintzako bigarren mailako ikasleak dira, eta uda honetan lankide boluntario bezala Hegoamerikako lurralde batera joatea erabaki zuten. Hor hasi zen guztia: «Gobernuz Kanpoko Erakundeen lana hasi ginen ikusten, eta azkenean Paraguain laguntzen duen bat aukeratu genuen, umeekin eta osasunarekin zerikusia duten proiektuak dituelako», azaltzen du Idoia Ruizek.

Paraguaiako Karai-Mi zonaldean igaroko dute abuztua, eta horregatik jarri diote izen hori gaurko jaialdiari.

Dirua materiala erosteko

Jaialdia Paraguaiako zonalde horretan burutzen ari diren proiektuak laguntzeko baliatuko dute. Hain zuzen ere, bertan lortzen du-

ten diruarekin materiala erosteko dute eskola eta zentro baterako. «Bildutako diruarekin joango gara, eta han ikusten ditugun beharren arabera erosteko dugu materiala», dio Ruizek.

Dirua biltzeko asmo horrekin hasi ziren bata zein bestearekin hitz egiten, eta pixkanaka emanaldi handi bat osatzea lortu dute; «dantzan zein musikan aritzen gara, eta geure ezagunei genuen ideia azaldu genienean, laguntzeko prest agertu ziren».

Dantza, musika, poesia...

Dantzari dagokionez, Alurr dantza taldeak hartuko du parte, Tolosako ballet eta dantza garaikideko tailerrekoek, Amets Sanchezek, eta Agroindar taldekoek. Irati Sorondok eta Olatz Sagastumek olerkia errezitatuko dute (tartean Karlos Linazasorok eginiko bat) eta Garazi Romerok eta Arrate Arbizak klarinetea joko dute; Bonbere nea txaranga eta Lain taldeko kideek parte hartuko dute, eta Maria eta Leire Lasa trikitilariak. Azkenik, Hirukoteko 4-5 ikaslek Paraguaireren inguruko bertsoak kantatuko dituzte.

KEY-LAN
Sarrailgintza

Nalansa etorb. 11 behean - TOLOSA
Mag.: 670 41 79 22
Tel./Fax: 943 65 03 13

Gidariak behar dira dokumentazioa eta balijak banatzeko.
Postu finkoak erakunde publikoetan.
Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenurako langileak behar dira.
Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako.
Postu finkoak.
Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40

Udalbiltzaren aldeko ekimenekin «gustura» agertu dira sustatzaileak

Politika » Tolosako eta Leitzako Babes Taldeek epaiketa salatzeaz gain fiskaltzari absoluzio eskatzen diote.

ERREDAKZIOA

Bai Udalbiltzari Sareak iragan maiatzaren 29an, Urretxun, ospatu zuen Euskal Herri mailako bilera. Bertan Udalbiltzaren aurkako epaiketaren atarian gaudela ikusita, herri guztietara informazio, elkartzasuna eta salaketa dinamika hedatzea erabaki zuten. Ekimen ugariaren artean ekainak 11 eta 12rako herrietan bi jarduerak zehatz proposatu zituen: lehenik, herriko Bai Udalbiltzari Babes Taldearen aurkezpena egitea; bigarrenik, larunbatean eguerdian kontzentrazioak egitea *Bai Udalbiltzari. Bai Euskal Herriari* lelopean.

Gure eskualdean Tolosa eta Leitzan izan ziren ekimenak aurrera atera zituzten herriak. Anoetan



Tolosan burutu zuten elkarretaratzea. I. TERRADILLOS

ere auzia salatu zutela azpimarratu beharra dago.

«**Oro har, parte hartze handia**» *Bai Udalbiltza Saretik* eskerrak eman nahi izan dituzte lehenik,

ondoren, elkarretaratzeak Euskal Herri guztian zehar burutu direla aipatu dute: «Lehenik eta behin, asteburuko bilera eta kontzentrazioetan egondako herritarrei gure eskerrak luzatu nahi dizkiegu,

egindako ekarpenagatik, eta erakutsitako babesagatik.

Bigarrenik, asteburu honetako ekimenaren arrakasta nabarmendu nahi genuke. Euskal Herriko eskualde gehienetan Babes Talde-

ak sortu dira eta kontzentrazioak egin izan dira, non milaka pertsonek parte hartu duten».

Aurrera begira

Udaletxeetan mozioak sartzen ari dira *Bai Udalbiltzari Sareak* ekimeneko kideak. Moziotzat hartzearen bidegabekeria salatu, elkartzasuna adierazi eta fiskaltzari absoluzioa eskatzen zaio.

Bestalde, Udalbiltzaren epaiketaz salatzen ari direnek adierazi dutenez, «ezin dugu ahaztu epaiketa honek kostu handiak dituela dirutan ere, eta aurre egiteko herrietan 10 euroko bonoak daude salgai, baita kamisetak ere. Laster ezagutzera emango ditugu, borondatezko diru-laguntzak helarazteko kontu korronteen zenbakiak».

Aurrera begira herrietako Babes Taldeak ekimenak lantzean hasiak omen daude: hitzaldiak, bideo emanaldiak, bazkari herrikoiak... Zentzu honetan, orain artekoa ikusirik, «garrantzi berezia eman diegu jasotako erantzunaren antzatsunari, Udalbiltza bera horren irudikatzea izan delako». Aurrerantzean ere horrela jarraitu nahi dutela adierazi dute. Beraz, herri-herrietar guztiei mobilizazioetan parte hartzea eskatu diete.

Tolosako Iurramendin Adinekoen Astea

ERREDAKZIOA

Astehenean hasi ziren ospakizunak igandearen amaituko dira Tolosako Iurramendin egoitzan. Adinekoen Astearen baitan ekitaldi ugari antolatuta dituzte egoiliarrentzat.

Aste osoko jaiari Mezarekin eman zioten hasiera. Ondoren txupinazoa bota zuten, globoekin. Bigarren egunean diplomak banaketa egin zuten besteak beste. Gaurberri, Iurramendiko koroak emanaldia eskainiko du kafetegian. Udal Musika Eskolako ikasleak ere bertan izango dira.

» EGITARAUA

Gaur, hilak 16

- **10:30ean.** Meza.
- **11:00etan.** Tonbola.
- **16:30ean.** Iurramendiko koroak emanaldia eskainiko du egoitzaren kafetegian.
- **17:30ean.** Tolosako Udal Musika Eskolako ikasleek emanaldia kafetegian.

Bihar, hilak 17

- **10:00etan.** Unitate psikogeriatrico erresidenteentzat meza.

- **11:00etan.** Bingoan jokatu dute karteekin.
- **17:00etan.** Alaitu koroak emanaldia eskainiko du egoitzaren kafetegian.

Etzi, hilak 18

- **10:30ean.** Meza.
- **11:00etan.** Galdera lehiaketa egingo dute eta ondoren sari banaketa ekitaldia.
- **16:00etan.** Bingo berezia ospatuko dute kafetegian.

Hilak 19, larunbata

- **12:30ean.** 2009ko memoriaren aurkezpena egingo dute, egoitzako funtzionamendua azaltzearekin batera. Bukaera hamaiketakoa.
- **18:00etan.** Meza. 90 urte bete dituzten erresidenteei omenaldia egingo zaie.

Hilak 20, igandea

- **13:00etan.** Astea amaitzeko bazkari berezia.

Lander Lasa tolosarrak Lagun Aro taldearekin jokatu du ACB saskibaloia Ligan

ERREDAKZIOA

Lander Lasa Tolosa jaio zen 1988an, hau da, egun 22 urte ditu. Lagun Aro GBC taldeak jakinarazi duenez, hurrengo denboraldian tolosarrak eurekin jokatu du ACB Ligan.

Lasa Tolosako Adiskideok KE taldean hasi zen jokatzeko 2001/02 denboraldian.

Hilberriak

ANTONIO ABAIGAR ERASO



Erraza izan da zu maitatzea ezinezkoa ordea, zu ahaztea



Beti gurekin izango zara Muxu bat attona.

Nagore eta Asier, Maialen, Miriam eta Anne

VILLABONAN, 2010eko ekainaren 16an

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA

www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

E Elkarrizketa

DENIS RUIZ › Manent taldeko kidea



HITZA

«Taldeari indar gehiago emateko bihurtu gara seikotea»

Tolosa » Boskotea seikote bilakatu ondoren, bigarren diskoa grabatzen aurkitzen dira une honetan Manent taldeko kideak.

ASIER IMAZ

Manent talde tolosarra bigarren diskoa grabatzen ari da. Euskal Herria eta Maroko artean egiten

ari diren lana da; lanpetuta bada-biltza ere gustura egiten duten lana dela diote. San Joanetan, ekainaren 25ean, Bide Ertzean, Dea-

bruak Teilatuetan eta Desordutan taldeekin eta Bonberenea Txaranga zein Hodeiertz Abesbatzarekin batera, *Mokolo gau batez* emanaldian hartuko dute parte 22:30etik aurrera. Denis Ruiz tolosarra da taldeko ahotsa eta gitarra akustikoa.

Disko berria prestatzen jarraitzen duzue. Uste baino izugero doa estudioko lana, ezta?

Egia esan bai, beti denbora faltan gabiltza nigandik hasi eta produktora arte. Bizi garen mundu honen eragin zuzena. Musikak berak bizitzeko ez duenez ematen, gure bizitzaren denboraren zati oso handi bat lapurtzen digu gure lanbideak, biziera delarik. Honen bestez, gure aisialdirako soilik musika utziz, ez dugu nahi adinako azkartasun edo erosotasunik disko berri honen prestatuntzarako.

Lan berriaren izena oraindik zehaztu gabe dago, baina ideia bat ziur izango duzuela buruan?

Ideiak egon badaude, baina diskoaren ikuspegi orokor bat izan arte ezin zehaztu. Beraz, diskoa kalera-
tu arte ez nuke hori aurreratzetik nahi.

Marokon eta Euskal Herrian ari zarete grabatzen. Zer nolako esperientzia izaten ari da.

Marokora grabatzera joan gineneko abentura oso polita izan zen, baina aldi berean zaila. Guk espero genuena laster hasi zen aldatzen; hango mekanismoak zerbait aldatzen zirelako hemengoekin alderatuta, bai lan tresnak eta baita lana egiteko era edo ikuspegia ere. Dena den, emaitza oso polita izan

da, batez ere gure lagun Rashid eta Gualisuren lanari esker. Bata abeslaria da eta bestea perkusionista.

Zergatik Marokon?

Abesti bat arabiar estiloarekin nahi genuelako eta nik han harreman oso onak ditudalako.

Lantzen duzuen musika estiloan, eraginik eduki al du Marokok?

Noski ezetz. Marokon ez dute inongo hurbiltasunik gure estilo musikalararekin. Baina esan beharra dago, musika guzतिक euren artean konexio bat dutela. Nire ustez hori gizakia bera izan liteke eta honekin elkartzasuna.

Lehen diskoan, amodioa zen gai nagusietako bat. Bide beretik jarraitzen al duzue bigarrenean?

Ez dugu erabat alboratu bide hori. Baina bigarren disko honetan, esan dezakegu beste gai batzuk jorratu ditugula. Baina beti ikuspegi

«Lanagatik ez dugu nahi adinako erosotasunik disko honen prestatuntzarako»

«Lan honetan beste gai batzuk jorratu ditugu, beti ere ikuspegi erromantiko bati lotuta»

erromantiko bati lotuta. Disko honen dezente kritikoagoa bihurtu naizela aitortzen dut.

Kolaboratzaileak ere alboan eduki dituzue. Nola sortu zaizue aukera hori? Zuek bilatu duzue?

Kolaboratzaileena ez dago oso

garbi, hau da, egongo diren ala ez edo zein egongo den. Hori ere disko grabatutakoan ikusiko da, disko borobiltzerako orduan.

Boskote bezala hasi zineten eta jadanik seikotea zarete. Inigo Asensio tolosarra elkartu zaizue teklatuekin. Aukeraketa nola izan da?

Seikotea bihurtzearen arrazoia taldeari indar gehiago ematearena izan zen gehienbat. Horrela, lagun berri bat batu zaigu gure erdi familia den honetara. Aukeraketarik ez genuen egin, hasieratik genekien Asensio gure artean behar genuela, musikari eta pertsona paregabea da eta.

Tolosako Jaietan kontzertua eskainiko duzue. 'Mokolo'-ren omeneko ekitaldia izango da gainera. Nolatan sortu da aukera hori? Zer lan egiten ari zarete ekitaldi horri begira?

Nire iniziatiba izan zen omenaldi festival antzeko hau, Iñaki oso lagun mina bainuen. Iturza eta Monfortek ere baiezkota eman zuten eta denon artean forma emateari ekin genion. Honetan 5 edo 6 taldek hartuko dute parte, denak tolosarrak: Bide Hertzean, Desordutan... Denon artean show oso berezi bat montatuko dugu. Denak *Mokolo gau batez!*

Etxean jotzea eta lagun baten omenez aritzea, bi arrazoi berezi dira.

Noski! Eta Tolosako beste hainbat lagunekin jotzea ere bai! Egund handia izango da Iñaki maite genuen guztientzako!

Taberna bat ere badaukazu Tolosan. Lana, jaia eta Manent-en musika gelditu gabe...

Nire musika tabernan ez dut jartzen, lotsa antzeko zerbait ematen dit horrek. Orokorrean besteen musika entzutea nahiago dut. Nire buruarekin kritikoegia izatera ailegatu naiteke batzuetan.

Eskuratu liburua
ekainaren 30a
bitartean
12 euroren
truke.

BERRIaren
harpidedunentzat
eskaintza
berezia:
6 €

Egin eskaera eta etxean jasoko duzu
www.berria.info
harpidetza@berria.info
943-30 43 45

AUKERA EZAZUL
BIZI EUSKARAZ
berria



Bedaioko IV. Mendi Martxa, BTT eta I.Mendi Duatloia egingo dira igandean

Bedaio » Artubi eta Balerdi inguruak zeharkatuko ditu, oinezkoentzako eta txirrindularientzako prestatutako ibilbideak.

ERREDAKZIOA

Bizikletarekin eta oinez, edo biak batera praktikatu, Bedaio inguruak ezagutzeko aukera izango dute igandean, mendi martxan parte hartzen dutenek.

Aurten lehenengo aldiz antolatu dute Duatloia. Aurreko urteetan mendi martxak eta BBT martxak zuten arrakasta ikusita biak bateratzea erabaki dute antolatzaileek. Pasa den urtean, 120 mendizalek eta 40 txirrindularik parte hartu zuten. Aurten ere, ez dute jende gutxiago espero Artubi Elkarteok.

Mendi martxari 07:30ean emango zaio hasiera herriko frontoian. Pilotalekuak markatzen dituen itsasoz gaindiko 389 metroatik, Aralar Parkean sartuko dira mendizaleak. Handik Amezketaldera joaz Larrondo igoko dute (720 m). Hemendik, Tolosako mendirik altuenera bidean jarriko dira. Eguraldiak laguntzen badu, Artubitik (1244 m) ikuspegi ederra izango dute begi aurrean mendizaleek, Balerdi ondoan dutela.

Zatirik gogorra egin ondoren, bideak beharrezko martxa hartuko du. Urdilleko lepoan, Nafarroa eta Gipuzkoako mugan, beharrez jaitsi eta Azkaratetik pasako da ibilbidea. Ibilaldiaren azken txanpan, pagadietan sartuko dira. Bedaioraino eramango dituen bideak, Artubiren ikuspegi ezberdinak eskainiko dizkie parte hartzaileei. 6-7 orduko ibilbidea izango da oinezkoena eta 3 kontrolgune egongo dira.



Bizikleta eta oinezkoen martxa eta I.Mendi Duatloia egingo dira aurten. HITZA



Bizikletan eta korrika: I.Mendi Duatloia


Oinezkoak baino ordu bate beranduago hasiko dira pedalei eragiten txirrindulariak. Erlojuak 08:30 markatzean ekingo diote lasterkerari Duatloiariek.

Lehenengo kontrolgunean bizikleta utzi eta igoera bertikalari ekin beharko diote. Artubira igo eta ikuspegiari begirada azkar bat eman eta solaserako denborarik gabe, beharrezko bidea hartuko dute. Kontrol gunean berriro bizikleta gainean jarri eta markatutako bidea hartu jarraitu beharko dute. Lehenengo urtea denez, oraindik denbora markarik ez dago, baina 3 ordu beharko dituztela uste dute antolatzaileek.

BTT martxakoe, Duatloiekoe-

» DATUAK

- **Eguna.** Ekainak 20, igandea.
- **Zer.** Mendi eta BTT Martxa eta I. Mendi Duatloia.
- **Hasiera-amaiera.** Bedaioko pilotalekuan hasi eta bertan bukatu.
- **Prezioa.** 10 euro.
- **Irteera ordua.** 07:30ean oinezkoak eta 08:30ean txirrindulariak eta Duatloieko partaileak.
- **Iraupena.** 6-7 ordu oinezkoek eta 3-4 ordu txirrindulariek eta Duatloieko parte hartzaileek.
- **Antolatzaileak.** Artubi elkarteak.
- **Izen emateko.** www.bedaio.com webgunean, mendimartxa@bedaio.com helbide elektronikoan edota 620199166 telefonoan. Egunean bertan, izena emateko aukerara ere izango da.



kin batera egingo dute ibilbidea. 08:30ean hasiko dira hauek ere, baina lehenengo kontrol gunean, BTTko bideari jarraituko diote. Artubi behetik ikusiko dute. Oinezkoan ibilbide berbera izango da zati gehienetan. Altzora aldiz, bidea banandu egingo da. Txirrindulariek bide luzeagoa egin beharko dutelarik, Bedaiora iristeko.

Izen ematea

Pasa den urteko arrakasta errepikatze asmoz daude antolatzaileak. Inguruetako herrietatik ez ezik, Gipuzkoako txoko ezberdinetako jendeak izena eman du.

Izen emateko epea zabalik dago www.bedaio.com webgunean edo

mendimartxa@bedaio.com helbidean. Egunean bertan ere jendeak izango du izen emateko aukera. 10 euro ordaindu behar dira, diru honekin, goizeko kafea, bukaerako pintxoak eta zozketa ordainduko dira. Bedaioko Mendi Martxak hainbat laguntzaile izan ditu. Laguntza honekin, material biketa egin dute antolatzaileek. Parte hartzaileek, Bedaio inguruko paraje zoragarrietan ibilbide eder bat egiteaz gain, mendiko oinetako, bizikletako elastiko edo Bedaioko gazta batekin etxera bueltatzeko aukera izango dute.

Bedaio ezagutzeko asmatan antolatuta zuten Mendi eta BTT martxa hau, iraileko zaldi raidarekin batera.



Denboraldi ederra egin dute

ALEGIA » Intxurre futbol taldekoek larunbatean denboraldia agurtu zuten. Zahagi ardoaren bueltan pilotalekuan afaria egin zuten kategoriaz ezberdinetako jokalariek. Urte guztian zehar izandako jokaera onagatik, saria jaso zuten hainbat jokalarik. Garaiaide Iturgintzak emandako erlojuak jaso zituzten gazteek. Datorren denboraldiari irailen ekingo diote. HITZA

Antziena kategorian
artikulu guztiak,
ekainaren 21a
bitartean, bidalketa
gastuak doan!

skunkfunk

www.euskalherriko
PLAZA.com

okot

Eusko Herriko Plaza
onizidea

Plaza

Plaza

Bertsozale Elkarteak eta Eusko Jaurlaritzak hitzarmena sinatu dute

Villabona » Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak 141.670 euro jasoko ditu, 2010. urtean egingo dituen hainbat ekintzetarako.

ENERITZ MAIZ

Atzo, Iñaki Murua Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen presidentea eta Lurdes Auzmendi Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, Villabonako Mintzola Etxean lankidetzak hitzarmena sinatu zuten.

Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteari 141.670 euro bideratuko dizkio. Diru hori, 2010. urtean garatu behar dituen hainbat ekimen bideratzeko izango da. Lau esparrutan izango du eragina: kudeaketa orokorrean, komunikazioan, transmisioan eta ikerkuntzan.

Hitzarmena sinatu ostean, lehenik eta behin, Lurdes Auzmendik hartu zuen hitza: «Bertsolaritza euskararen ezaugarri nabarmen bat da. Ehunka urtez euskal kulturaren adierazpen berezi bat izan zen eta gaur egun arrakasta handia izaten ari da. Horregatik, sailburuordeak honek, bertsolaritza sustatzeko bere konpromiso sendoa adierazi nahi du» azpimarratu zuen. Eta «prestgaude, Bertsozale Elkartearekin eta bertsolaritzaren alde diharduten guztiekin elkarlanean aritzeko. Eta egingo duzuen lana emankorra izatea espero dugu» gaineratu zuen.

Jarraian, Iñaki Murua bertsolari eta Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen presidentea hartu zuen hitza: «Zuen ekarpena benetan beharrezkoa ez ezik, ezinbestekoa ere bada gure jardunean.



Iñaki Murua eta Lurdes Auzmendi, atzo Mintzolan lankidetzak hitzarmena sinatzen. E. MAIZ

Nola transmisioan hala komunikazioan, gure sail ezberdinetan berri-ri ahal izateko» adierazi zuen.

Duela ehunka urtean egin izanak, ez du ziurtatzen beste ehunka urtetan egingo denik eta ekarpena eta hitzarmenaren mamia «berri-tzeko, gaurkotzeko eta geroratze-ko» baliatuko dutela azpimarratu zuen Muruak.

Bertsozale Elkarteari dagokionean berriz, Iñaki Muruak, atzo bi katu zirela esan zuen eta gaur egun, bi milatik gora bazkide eta berrogeitik gora langile direla gogorarazi zuen. Eta egitura horri berari etsi ahal izateko, hitzarmen honen edukia, emaitzak eta etekinak behar beharrezkoak dituztela. Honenbestez «eskerrak» eman zizkion hitzarmena sinatzeagatik. Eta «ildo eta bide berean» jarduna burutzeko prest daudela argitu zuen.

Egitasmoak, lau esparrutan

Idazkaritza eta koordinazio lanera bideratuta, besteak beste, bost bertsozale elkarteren arteko kudeaketa, herri administrazio eta gainerrako erakundeekiko harremanak eta elkarlanen behar bezalako jarraipena edota langileen prestakuntza beharrezkoan diagnostika egingo lituzkete.

Komunikazioaren helburu nagusiak: herrialdeekiko nahiz sailekiko zehar lerroen egituratzea, komunikazio saila dinamizatzea, komunikazio batzordearen egitura berria aktibatu eta herrialdeetako komunikazio arduradunen bitartez, elkarteren arteko etengabeko komunikazio fluxua areagotzea, webgune berriaren proiektua diseinatu eta garatzen hasia, hedabide eta gizarte mailan elkarrekin duen presentzia mantendu eta areagotzea... egingo lirateke.

Hirugarren esparruan, transmisioa dute: lan ildoak egituratzea, material ildoak definitzea, urte osoko eskaintza bermatuko lukeen barnetegi baten proiektua diseinatzea, bertso-ekoletarako kanpaina bat bultzatzea eta datu basea osatu edota batzorde indartsua bermatzea izango lirateke.

Azkenik, ikerkuntzaren esparruan, ikerkuntza taldeari eta egitekoari buruzko gogoetari bide eman, Mintzola ikerlaneanekin zein beste ahozkotasan generorekin elkarlanean bideratu eta garatu, IKER azpibatzaileak berpiztu edota Bertsozale Elkartearen historia landu eta proiektua definitu berau abiatu.

Beraz, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak, ondorengo hilabete eta urteetan badu zer egin, zer hobetua eta zer eskainia. Eta ziur bertsozaleak eskertuko duela.

Laburrak

Leintz Gatzagara joateko irteeran izen ematea

IRURA » Irurako Jubilatuen Elkarteak irteera antolatuta du Leintz Gatzagara. Ekainaren 25ean egingo dute. Goizeko 09:00etan behoko geltokitik autobusez aterako dira. Amurrión bazkalduko dute eta iluntzerako itzuliko dira Irurara. Prezioa 28 eurokoa da eta irteera joan nahi duenak, Zaharren Biltzokian eman beharko du izena.

Festak antolatzeko bilera hilaren 22an 19:00etan

IRURA » Irurako Festa batzordeak, hilaren hasieran eginiko batzarrean, besteak beste, Irurako San Mielak 2010, herriko jai nagusiak irailaren 24, 25, 26, 28, 29, urriaren 1 eta 2an ospatuko direla erabaki zuen. Jaiak antolatzeko hurrengo batzordeak berriz, hilaren 22rako deitu dute. Udaletxeak Batzarraldi Aretoa izango da 19:00etan.

San Joan bezperako afarirako izen ematea

ANOETA » San Joan bezperan, suaren inguruan, afaria egin ohi dute anoetarrek. Ikusirik ia zahar eta aulki kopurua motz gelditu zela, antolatzaileek, aurten gutxi gorabeherako kalkulatu bat egiteko izena eman beharko da hilaren 18a bitartean. Udaletxean edota kirodegian eman beharko da. Nahikoa izango da lagun koadrila bakoitzeko bat apuntatzea, bere taldean zenbat diren azalduz.

Etzi San Joan Zortzikoko dantza egiteko entsegua

ANOETA » Ekainaren 23an suaren inguruan San Joan zortzikoko dantza egin nahi dutenentzat, entsegua egin behar du antolatuta dute. Hilaren 18an izango da. 19:00etan hasiko dira eta kirodegian izango da. Herri-ritar guztiak gonbidatuak daude parte hartzera.

Udaleku irekietako gurasoen bilera etzi

ZIZURKIL » Hilaren 18an, 18:00etan izango da Oporretan Euskaraz udaleku irekien bilera Atxulondo Kultur Etxean. 1998-2006 urte bitartean jaiotako haurren gurasoei zuzendua da. Udalekuak, hilaren 28an hasiko dira eta uztailearen 23ra bitartean izango dira.

Javier Bello-Porturen bigarren Cd-a salgai

TOLOSA » Javier Bello-Portu Kultur Egitasmoa elkarteak eginiko Javier Bello Porturen lan koralean bigarren Cd-a salgai dago. Tolosako Zurbeltz musikak dendan, 15 euroren truke eskura daiteke. Alejandro Zabala arduratuta da pianoa jotzeaz eta Kea ahots taldeak abestu ditu kantak. Abestietako batzuk argitaratu gabe zeuden oraindik.

Zimiterioko Eskuz Binakako Txapelketa

Zizurkil » Aurtengoa VIII. edizioa da. Edozeinek parte hartu dezake eta izena, hilaren 20a baino lehen eman beharko da.

E. MAIZ

Urteroko ohiturari jarraituz, urte sasoi honetan, Ziotza Kirol elkarteak Zimiterioko Txapelketa antolatuta du. Dagoeneko guztia prest dute eta parte hartzaileak izena ematea baino ez da falta.

Zizurkilgo frontoi berezi horretan jokatzeko den VIII. edizioa da aurtengoa. Zimiterioko binakako esku pilota txapelketa da, eta edo-



Zimiterioko Eskuz Binakako Txapelketako partida bat jokatzeko. G. AZKUE

zein bikoteak eman dezake izena. Ekainaren 20a, igandea, izena emateko azken eguna da eta parte hartu nahi duenak bi telefono zen-

baki hauetako batera deitu beharko du: 616 96 11 53 edo 649 70 34 72. Izena ematen duen bikoteak, 10 euro ordaindu beharko ditu.

Finala herriko festetan

Aurreko urteetan egin bezala, izena eman duten bikoteen arteko saillkapen partidak uztailean zehar jokatu dira. Finala berriz, irailean ospatzen dituzten Zizurkilgo Jaien barruan jokatu litzateke.

Parte hartzaileek, sari bikainak irabazteko aukera ere izango dute. Lehen bikoteak, txapela, kopa, 120 euro eta afaria eskuratuko ditu. Bigarren bikoteak, kopa, 60 euro eta afaria izango ditu sari moduan eta hirugarren eta laugarren bikoteentzat, afari bana izango da. Herriko lehen bikoteari berriz, 60 euroko saria emango diote. Pilota zaleek beraz, aukera polita dute, eskuz binakako txapelketa honetan.

Gazte sentitzen diren guztientzat festa izango da asteburuan, Ibarra

Ibarra » Herriko Gazte Asanbladak antolatuta etzi iluntzean hasiko dira Gazte Festak eta igandera arte luzatu.

ERREDAKZIOA

Etzi arratsaldean hasiko dira Ibarako Gazte Festak. Herriko Gazte Asanbladak antolatuta, hiru egunetan zehar, gazte sentitzen den ororentzako izango dira ekitaldiak.

Ostiralean 19:00etan botako dute jaietakolehensuziria, eta hortik aurrera kaleak ez dira hustuko. Gero, lau t'erdiko pilota txapelketako finala jokatuko da. Aurten lehendabiziko aldiz antolatu dute norgehiagoka, eta ondorengo biak izan dira finalera iritsi direnak, Jon eta Mattin.

Pilotalakuko amaiteu ostean, hurrengo hitzordua Gaztetxean izango da. Hala, egunari amaiera emateko eta gauari hasiera, barrikote berezi bat egingo dute. Izan ere, herriko hainbat gaztek ehun laguntzako paella prestatuko dute. Sagardoa ere ez da faltako. Jaietako lehen egunari amaiera emateko, musika. Alde batetik, rock doinuak ekarriko ditu Villa-



Sendi Ekintzaren eskutik, larunbat arratsaldean egingo dute tortillada, txokolatadarekin batera. A. IMAZ

bona aldetik datorren Lain taldeak, eta bestetik, ska, Vendettaren eskutik.

Ume jolasekin hasi eta erromeriarekin amaitu

Larunbat goizean, hurrek ekingo diote jaiari. Gazteek berriz, nahiko egin eta indarrak berreskuratuta, arratsaldean, Altxorraren bila erraldoia izango dute zain. Honekin, jai herrira zabaldu nahi izan dute Gaztetxeok. Parte hartzaileek 16:30ean azaltzea besterik ez

dute egin behar. Honela, taldeetan banatuko dira eta herriko barrena, altxorraren bila ibiliko dira. Gero, Sendi Ekintzak sukaldatuta, tortillada eta txokolatada izango dira.

Iluntzean, 19:00ak inguruan, Alurr Dantza Taldearen emanaldia izango da. Alurreko lau taldeetan aritzen diren 85 dantzari gazteek parte hartuko dute saioan. Arin-arin, fandango, agurra, bana eta beste hainbat euskal dantzetan oinarritutako hainbat koreografia aurkeztuko dituzte. Alurre-

ko dantzariekin batera, Lizarrako dantza talde bat ariko da. Gauean, erromeria izango da Laiotz taldearen eskutik.

Igandea, gehiententzat aje eguna izango bada ere, egongo da zer eginik. Goizean, Loatzo musika eskolakoei ikasturte amaierako kontzertua eskainiko dute. Bestetik, poteo masiboa izango da 12:30ean. Plaza ingurutik abiatu, herriko tabernetatik sartu-irtena egin eta Xepla elkartean amaituko dute ibilbidea, bertan bazkaltzeko.

» GAZTE FESTAK

Ekainak 18, etzi

- 19:00. Txupinazioa.
- Ondoren. Lau t'erdiko eskupilota txapelketa herrikoia finala.
- 21:00. Barrikotea Gaztetxean, herriko trikitilarien laguntzaz.
- 23:00. Kontzertua plazan, Lain eta Vendetta taldeekin.

Ekainak 19, larunbata

- 11:30. Ume jolasak.
- 16:30. Altxorraren bila erraldoia.
- 17:30. Tortillada eta Txokolatada Sendi Ekintzaren eskutik.
- 19:00. Alurr eta Lizarrako dantza taldeen emanaldia.
- 23:00. Erromeria Laiotz taldearen eskutik. Tarten Atarrabiako Gas taldearen emanaldia.

Ekainak 20, igandea

- 12:00. Kontzertua Loatzo musika eskolaren eskutik.
- 12:30. Poteo masiboa.
- 14:30. Gazte bazkaria Xepla elkartean. Bertsolariak arduratuko dira giroa alaitzeaz (txartelak ohiko tokietan daude salgai).
- 16:00. Xiba, Ikastolen Elkarteak antolatuta, euskal herrien arteko euskal jokoan VII. jaialdia.
- 22:00. Kontzertua Desordutan taldearekin Gaztetxean.

Arratsaldean 10 herri ezberdinetako 150 lagunek hartuko dute parte Xiba jokoetan. Honen ondotik, Desordutan talde Tolosarraren eskutik esango diete agur Gazte Festei.

Urkizu finalerdietan da Paleta Argentinarreko Kutxa Sarian

Paleta » Etchelecu eta Comet izango dituzte aurkari igandean, berak eta Graciet-ek; Arozena txapelketatik at geratu da.

ERREDAKZIOA

Amaitu dira Emakumeen Paleta Argentinarreko Kutxa Sariko ligaxkako partidak. Eskualdeko bi pilotari hasi ziren bertan, jokoan, Nagore Arozena lizartzarra eta Itxaso Urkizu berastegierra hain zuzen ere. Baina horietako bakarra sailkatu da finalerdietarako, Urkizu.

Sei bikoterekin ekin zioten txapelketari eta multzo bakoitzeko azkena kanpoan geratu da, garaipekin gabe. Finalaurrekoetan, lau bikotea ariko dira lehian.

Lehen jardunaldia Irungo Ramuntxo Berri pilotalekuan jokatuko da igandean honetan, 11:30etik aurrera. Hasteko, Patri Espinar eta Maite R. de Larramendi bikoteak, Susana Muneta eta Ainhoa Montese izango dituzte aurkari. Bigarrenean, eskualdeko baten txanda



Aurrekoan, Urkizu eta Graciet gailendu zitzaizkien Zamora eta Arozenari. HITZA

izango da, Amaia Etxhelecu eta Magalie Comet-ek Itsaso Urkizu eta Severine Graciet izango dituzte aurkari. Ainhoa Montese eta Amaia Serren lekua hartu behar izan du, azken honek, belaunean izandako lesio batek eraginda, ez baitu pixka batean jokatzetik izango.

Txapelketa lehiatua

Ligaxkako hirugarren jardunaldia ekainaren 6an jokatuko zen. Bertan Urkizu eta Graciet gailendu zitzaizkien, 30-13, Zamora eta Arozenari. Hasiera-hasieratik, baina,

jokoan nagusi izan ziren Urkizu eta Graciet, eta, markagailuan nabari den bezala, estutasun handiegirik igaro gabe lortu zuten aurrerako txartela. Bestalde, Etchelecu Comet eta Herve-Elguezabalen artekoan, lehendabizikoak izan ziren nagusi, 30-27 irabaziz. Partida dezente estutu zen bikote gorria tanto bakarraren faltan zenean, 29-22 aurretik, aurkariet erreazionatu eta 27raino iristea lortu baitzuten. Amaieran, ordea, 30-27 eta gorriak zuzenean finalerdietara, bitik bi garaipean poltsikoratuta.

Datorren hilean haur txokoa eta tailerrak izango dira herrian

Leitza » Adinaren arabera banatu dituzte taldeak; sormena, kultura eta natura dituzte ardatz ekimenez.

ERREDAKZIOA

Uda honetan aspertzeko betaririk ez dute izango Leitza haurrek. Gaztetxeok etxetik aterazteko asmoz, tailerrak eta haur txokoa antolatu ditu Udalak, euskara zerbitzuarekin eta Leitzaaldeko Gizarte Zerbitzuko Mankomunitatearekin elkarlanean.

Tailerretan nahiz haur txokoa izena emateko, 012ra deituta egin daiteke. Plaza mugatuak direnez, herriko izatea eta izena emateko ordena kontuan hartuko dute, lehentasunak ezartzeko orduan.

Txikienetik hasita, hiru eta sei urte bitarteko haurrentzat, lau txoko ezberdin izango dira. Hasteko, uztailearen 5etik 9ra, Naturarekin jostatzen izeneko egingo dute. Bigarren txokoa, euskal mitologia

du ardatz, eta Mari, Galtzagorriak, Tartalo eta Basajauna bezalako pertsonaiek ezagutzeko aukera izango dute haurrek. Uztailearen 12tik 16ra iraungo du honek.

Hirugarrena, sukaldaritzakoa da. Pizza, erroskilak, taloak, ... egingo dituzte saioen baitan. Uztailearen 19tik 23ra egongo da zabalik txokoa. Azkeneko sormena lan-tzeko dago antolatuta. Uztailearen 26tik 30era izango da hau.

Sei eta hamabi urte bitarteko gaztetxeok berriz, tailerrak izango dituzte. Hauek ere lau izango dira, eta haur txokoen data berdina izango dituzte. Hala, lehendabizikoa naturaren inguruko izango da, uztailearen 5etik 9ra bitartean. Bigarrenak, Sukaldea saltsan du izena, eta uztailearen 12tik 16ra izango da. Hurrengoan, papera oinarri hartuta, hau nola birziklatu, eskulanak egin, kolorez tindatzen... ikasiko dute. Uztailearen 19tik 23ra izango dira saioak. Azken tailerrari, Hi haiz artista! jarri diote izenburu, eta uztailearen 26tik 30era izango da.



14°
13°

GOIZA
ARRATS.
BEROENA
HOTZENA

EURIA
EURIA
17°
13°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko ideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Amezketak.** Uztailaren 16 eta 17an egingo den Ehunmilak mendi lasterketa antolatzeke boluntarioak behar dituzte Amezketako gunean. Laguntzeko interesa dutentzat bilera deitu dute biharko, balio anitzeko gelan, 19:30ean. Informazio gehiagorako 660 04 26 80ra (Manu) dei daiteke.
■ **Bedaio.** Ekainaren 20an Bedaio-ko IV. Mendi eta Bizikleta Martxa. Aurten duatloia ere bai. Izen-ematea, egunean bertan, www.bedaio.com edota 620 19 91 66 telefonora deituta. Izen-ematea 10 euro balio du (goizeko kafea, bukaerako pintxoak eta zozketa barne). Antolatzailea: Artubi kultur elkarte.
■ **Berastegi.** Gaztañondo jubilatuen elkartetik ibilaldia antolatu dute uztailaren 2rako Errioxako Briones herrira (bisita eta enbutido); bazkaria Hotel Ciudad De Haron eta dantzaldia. Izen-ematea, elkartearen 10 eurotan.
■ **Tolosa.** Ekainaren 29rako Gazte Topagunearen irteera Arcachonera. Izen-ematea, Kultur Etxean.
■ **Tolosa.** Uztailaren 4an jubila-

tuen festa. Izen-ematea, Harizpe eta Iturriza elkartearen 3 eurotan.
■ **Zizurkil.** Elbarrenako festak irailen ospatuko dituzte eta jai horiek iragarriko dituen kartela lehiaketa bidez aukeratu dute. Edozeinek har dezake parte. Lana, DIN A4 tamainan aurkeztu behar da. Irabazleak jasoko duen saria 175 eurokoa izango da. Kartelean *Zizurkilgo jaiak 2010. Irailak 8-9-10-11-12* testua agertu beharko da. Lanak aurkezteko azken eguna hilak 30, asteazkena, izango da. Udal bulegoetan (Aurrera plaza, 3) edota Liburutegian.

Ikuskizunak

■ **Tolosa.** Karaimi jaialdi benefikoa Leidor aretoan 20:00etan: dantza, musika, bertsoak...

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Iaz, Ibarratik Misio Taldearekin duten elkarlanerari adierazgarri, beste hainbat moja etorri ziren Euskal Herrira. HITZA

Indiako mojei ongietorria

Ibarra » Hamalau moja etorri dira egun batzuk bertan igarotzera; horregatik Meza berezia antolatu du Misio Taldeak.

ERREDAKIZIOA

Indiatik 14 moja etorriko dira etzi Ibarra, bertan egun batzuk igarotzeko asmoz. Hala, Indian dagoen jesuita bat hemen oporretan dagoela aprobetxatuz, Ibarra Misio Taldeak Meza berezia bat antolatu du igande honetarako. Izan ere, eskualdeko elkarte kideek urte asko daramatzate elkar-

lanean, Indiako herrialdearekin, herrialde txirowni laguntzeko asmoz.

Bartolome Parroki Elkartearen ospatuko da Meza, ekainaren 20an. Eukaristia misio giroan eta misiolaritza estiloan egingo dute. 10:00etan bilduko dira elizan, Indiatik etorritako 14 erlijioso Berunekin. Erlijioso elkarte hauek Gujarat lurraldean pobrezia eta txirotasun lekuetan lan egiten dute; beraien fundatzaileak, M. Zoila Grantzarain ibartarrak, duela 60 urte hasitako bidea animatuz eta jarraituz.

Modu desberdinetan Ibarra kristau elkarteak, baita Ibarra he-

rriarik ere, parte hartzen du emakume hauek egiten dituzten emakumeen promozio lanetan, osasun eta hezkuntza alorrean, bekak lortuz...

«Elizkizunean fede esperientzia elkarrekin ospatzeko aukera izango dute», baita erlijio elkarte honek fedea adierazteko dituen dantzaz, otoitzaz (gujarat kulturakoak) disfrutatzeko ere.

Ibarra Misio Taldekoek herriar guztiak gonbidatzen dituzte igandeko ospakizunerara. Hala nola, «elkartasun eta fede esperientziatik eskaintzen zaigun elkartasunerako deialdi honetan parte hartzeraz».

A Agurrak



Zorionak!

Ze guapa amona Kristina!
Gaur 80 urte. Zorionak eta muxuak denon partetik.

agurrak
urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza**
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31980 Leitza